

Informazioa zabaltzen

Zertaz ari gara interseksionalitateaz hitz egiten dugunean?

...Ezagutzen...

Marie Lucía Monsheneke

Interseksionalitatea



INFORMAZIOA ZABALTZEN

Interseksionalitatea azken garaietako feminismoen funtsezko kontzeptuetako bat bihurtu da. Feminismo hegemonikoa batez ere erdi-mailako klaseko emakume zuriei zuzendu zaien bitartean – hau da, batez ere feminismo zuria zen–, interseksionalitateak askoz ere errealitate desberdinagoak sartu ditu ekuazioan.

Terminoak Kimberlé Williams Crenshaw-k sortu zuen 1989an, Estatu Batuetako akademikoak eta arrazaren teoria kritikoan espezializatutako irakasleak. Honela definitzen du interseksionalitatea: "hainbat gizarte-kategoriatakoa izateagatik pertsona bakoitzak zapalkuntza jasatea edo pribilegioak gozatzea eragiten duen fenomenoak".



Bi emakume beltzen zapalkuntzak eta desberdinkeria-bizipenak antzekoak al dira? Hori bakoitzaren egoeraren mende egongo da: baliteke kasu batean mediku beltz bat izatea, New Yorkeko goi-mailako auzo batean bizi dena; eta bestean, berriz, Frantzian etorkina izatea, legez kontra iritsi dena eta ezin duena ondo ordaindutako lanik egin. Bigarren kasuan, zaurgarritasun-egoera handiagoa da.

Dimentsio ugari daude, pertsona bakoitzaren identitatea eta aniztasuna ahalbidetzen eta azaltzen dituztenak. Interseksionalitatearen teorizazioa sexuaren, arrazaren eta gizarte-klasearen ardatzei estu lotuta sortu zen, baina, gaur egun, ardatz hauetan lantzen da gehien Europako testuinguruan: gizarte-klasea; desgaitasuna eta dibertsitate funtzionala; adina eta bizi-zikloak; sexua, generoa, sexu-orientazioa eta genero-identitatea; kultura-jatorria, migrazioak eta nazionalitatea; arrazialitatea; eta, azkenik, erlijioa eta sinesmenak.

Horrela, interseksionalitatearen tresnak balio du aztertzeke, ulertzeke eta erantzuteke generoa beste identitate batzuekin nola gurutzatzen den, eta gurutzamendu horiek nola laguntzen duten zapalkuntza- eta pribilegio- esperientzia bakarrak sortzen.

Interseksionalitateak jakin nahi du arrazakeriak, patriarkatuak, klase-zapalkuntzak eta bestelako diskriminazio-sistemek emakumeen posizio erlatiboak egituratzen dituzten desberdinkeriak nola sortzen dituzten, nahitaez testuinguru historikoak, sozialak eta politikoak kontuan hartuta. Interseksionalitatea hezkuntza-jardunbidean kontuan hartzeak ikasgelako aniztasunaren ulermen sakonagoa eta holistikoagoa eskaintzen du.

"Interseksionalitatea da hainbat gizarte-kategoriatakoa izateagatik pertsona bakoitzak zapalkuntza jasatea edo pribilegioak gozatzea eragiten duen fenomenoak."



Peninah Wangari-Jones, Estatu Batuetako aktibista beltzak, “Aliatu hobea izan: interseksionalitatea ulertuz” artikuluan, oso ondo adierazten du interseksionalitateak analisi erreminta bezala dakarrena: Interseksionalitateak nabarmentzen du gizarte-kategoriak gizabanako edo talde bati aplikatzen zaizkiola, eta, horrela, sistema gainjarriak eta elkarren mendekoak sortzen direla, mesedekoak eta desmesedekoak.

Hau da, pertsona baten generoa, arraza, euskaltasuna, dituen ahalmenak edo sexu-orientazioak elkarren artean banatu ezin diren heinean, ezinezkoa da aztertzea horietako bakoitzak sortzen duen diskriminazio banatua, izan ere, mendekotasuna sortzen duten sistema eta estruktura elkarren artean konektatuta daude.

Beste era batera esanda, Irantzu Varelak oso ondo azaltzen duen moduan, ezin gara genero opresioaren kontra egon klase opresioaren kontra egon gabe, ezta arraza opresioaren kontra egon gabe, ezta heteronormak sortzen duen opresioaren kontra egon gabe, ezta transfobiaren kontra egon gabe, ezta kapazitismoak sortzen duen opresioaren kontra egon gabe.

Honekin batera, interseksionalitateak (beste begirada batzuek ere egin izan duten bezala), gure pribilegioen azterketa egitera bultzatzen gaitu. Opresio-sistemek sortzen dituzten botere-harremanen ondorioz, batzuetan diskriminazio-egoeretan edo pribilegio-egoeretan aurkitzen gara, eta hori ulertuta, gure erantzukizuna da dauzkagun pribilegio horien kontra egitea. Interseksionalitateak aukera hori ematen digu, bai era indibidualean eta baita era kolektiboan egiteko ariketa bat bezala.


Beraz, proiektuak, ekintzak, programak... diseinatzerako orduan, analisi interseksionala kontuan izan beharko genukeela, izan ere, esan dugun bezala, ezinezkoa da emakumeen aldeko politikak egitea emakumeak zeharkatzen dituzten beste botere ardatz guztiak kontuan izan gabe; edota eskola bateko gela bateko programazioa diseinatzerako orduan.

Ikuspegi hori hezkuntza-komunitateetan aplikatzeak ikasleen esperientzien konplexutasunei eta ñabardurei heltzea errazten du, eta, horrela, gizarteratzea, ongizatea eta arrakasta akademikoa sustatuko dituzten estrategiak eta politikak diseinatzea.

Interseksionalitatea hezkuntza-inguruneetan tratatzeak, ikasle eta hezitzaileei mesede egiteaz gain, gizarte inklusiboagoa eta bidezkoagoa eraikitzen ere laguntzen du.

Hezkuntzaren esparruan interseksionalitateak eskainitako oinarritzko premisa batzuk:

- ✓ Aukera ematen du oro har ikasleei nahiz ikasle-talde zehatzei zuzendutako hezkuntza-jardunbideen logikatik harago joateko, logika hori ez baita eraginkorra ikasleen benetako bizitzen ñabardurei eta konplexutasunari erantzuteko.
- ✓ Kontua ez da desberdinkerien batura egitea, baizik eta ikasleengan non eta nola elkartzen diren aztertzea.
- ✓ Testuingurua kontuan hartzen du: ikastetxe bakoitzean errealitate erabat desberdina dago besteen aldean.
- ✓ Aukera ematen du hezkuntza-komunitate osoa bai pribilegioaren eta bai zapalkuntzaren ikuspegitik aztertzeko.
- ✓ Homogeneizatzea saihesten du: aniztasuna ikusgai jartzen du gizarte-talde beraren barruan.
- ✓ Zalantzan jartzen du identitatea eta kultura osotasun itxi, estanko eta homogeneoa izatea.
- ✓ Aukera ematen du hezkuntza-jardunbidean joerak eta bazterketak identifikatzeko, alderdi hauen arabera: ikasleen definizioa, familiak, ezarritako curriculumak, irakasleen eta ikasleen arteko harremanak...



...HAUSNARTZEKO...

Interseksionalitateak, halaber, nork bere buruari begiratzea planteatzen du, gure elkarguneak eta pribilegioak zein diren galdetzeko.

01

Irakurtzeko

En "**El feminismo es para todo el mundo**", la autora afronorteamericana Bell Hooks aborda la interseccionalidad de raza, género y clase, y trata de señalar el sujeto del feminismo. *Traficantes de sueños*, 2017.

02

Ikusteko

En "**Feminismo interseccional: un feminismo diverso**" varias feministas hablan de la necesidad de incorporar la mirada interseccional en los feminismos, sobre todo en los blancos

03

Sakontzeko

Artículo en Pikara Magazine de Yuderkis Espinosa Miñosa, filósofa, escritora e investigadora feminista, antirracista y descolonial de la República Dominicana.

INTERESGARRIAK

MARIE LUCÍA MONSHENEKE

Marie Lucia Monsheneke, FAMEK Elkarteko sortzaile kidea, aktibista eta berdintasun-eragilea, Kongoko Errepublika Demokratikoa.

Giza duintasunaren errespetuaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako aktibista afrikar modura definitzen du bere burua



Azken urteotan aurrerapauso handiak eman ditugu berdintasun arloan, genero-ikuspegia zeharkako moduan gaineratuta. Zer unetan gaude sekzio artekoa ere baden begirada bat gaineratzeari dagokionez?

Formakuntza garaian gaude. Lan asko egin behar dugu ikuspegi horretatik begiratzen ulertzeko. Zenbaitzuek premia hori zalantzan jartzen dute, baina gizarte bidezkoago baten aldeko urratsak ematen ari dira. Bidean bagaude, baina prestatutako jendea falta da. Begirada deseraiki eta berriro eraikitzeko lan egiten jarraitu behar dugu. Izan ere, gizarte osasungarri hori nahi badugu, bide horretatik pausoz pauso jarraitu beharko dugu.

Zeintzuk dira begirada interseksional horren faltaren ondorioak?

Zalantzarik gabe eragina sekulakoa da gizarteko maila guztietan. Oso eragin garrantzitsuez ari gara hitz egiten, esate baterako, haurren autoestimu arazoak, frustrazioa, motibaziorik eza eta, are, eskola-porrota.

Beren hurrei etxeko lanak egiten lagundu ezin dieten familiak ditugu, hemengo hezkuntza-sistema ulertzen ez duten familiak eta bere seme edo alabarentzat laguntza indibiduala ordaintzeko behar adina baliabide ez dutenak.

Horrela, mugimendu panafrikarrarekin, adin txikikoei etxeko lanak egiten laguntzeko ekimen bat abiaraztea erabaki genuen. Euskara ulertu eta hitz egiten duten migratzaileen laguntzarekin, etxeko lanak egitean frustrazioan sentitzen zuten adin txikikoak laguntzen genituen eskolaz kanpoko ekintza modura. Eskaera oso handia zen.

Horixe izango da Otxarkoagan irekiko dugun lokal berrian garatzen jarraituko dugun programetako bat.

Bururatzeko zaizu hezkuntzaren alorrean interseksionalitatearen gaineratzeko jarraibide edo gomendiorik?

Hasteko, ezinbestekoa da entzute aktibo pertsonalizatua garatzea. Afrikatik datorren orok bizipen berdinak izan dituela pentsatzeko joera dugu, premia berdinak dituztela guztiek. Haatik, arreta eta entzute pertsonalizatua egitean, pertsona bakoitzaren testuingurua, egoera eta kezkek hobeto ulertzen ditugu. Kontua ez da gehiago laguntzea, hobeto ere lagundu behar da.

Gainera, garrantzitsua da gure imajinarioa deseraikitzea. Afrikako herrialde batean egote hutsagatik kontinente osoko kultura zehatz-mehatz ulertzen dugula uste dugu. Entzun egin behar dugu eta testuingurua kokatu akonpainamendu eraginkorra egiteko.

Horrela, gizarte berdinzaleago eta inklusiboago bat lortzeko lanean jarraitu ahal izango dugu.

BERRIAK

1

Udan ere errespetuan, berdintasunean eta autonomian oinarritutako jarrerak sustatzeko **BELDUR BARIKETIK** sentsibilizazio-kanpainako materialak zabaldu dira.

DESKARGATU
KARTELA

BIDEOA
IKUSI

GIDA
DESKARGATU

2

Emakundek **JAKITUN PROGRAMA** jarri du abian, Eusko Jaurlaritzako hainbat arlotako politikariei eta teknikariei analisirako elementuak emateko helburua duen ekimena, indarkeria matxistaren prebentzioarekin eta arretarekin lotutako hainbat gairi buruzko ahots kualifikatuek aurkeztua.

INFORMAZIO GEHIAGO

DENBORA PASA

Nork esan ditu hurrengo esaldiak?

a. "Desgaitasuna dugun emakumeok ahizpa ahaztuak gara emakumeentzat".

b. "Feminismoa pentsamendu politiko, gizarte-mugimendu eta bizimodu bat da. Hainbeste gauza izanik, interpretazio asko eta feminista izateko modu asko egotea da normalena. Izan ere, oso pentsamendu kritikoa eta eraldatzailea denez, eta etengabe ari denez eboluzionatzen, eztabaida ugari ireki dira haren inguruan".

c. "Ez gaituzte gure arteko desberdintasunek banantzen; desberdintasun horiek aitortzeko, onartzeko eta ospatzeko dugun ezintasunak banantzen gaitu".

d. "Ez naiz onartzen ari aldatu ezin ditudan gauzak: aldatzen ari naiz onartu ezin ditudan gauzak"



1. **Angela Davis**, mugimendu feminista beltzean egindako lanagatik eta genero-berdintasunaren eta gizarte-justiziaren alde egindako borrokagatik emakume aktibista politiko oso ezaguna.



2. **Maryangel García-Ramos Guadiana**, "Mujeres Mexicanas con Discapacidad" erakundearen fundatzailea eta aniztasuneko eta inklusioko bulegoko liderra Monterreyko Teknologikoan.



3. **Audre Lourde**. Idazlea eta aktibista. Honela definitzen du bere burua: "gerlari poeta feminista beltza eta lesbiana".



4. **Irantzu Varela**. Euskal kazetari eta militante feminista. Faktoria Lila espazioaren koordinatzailea eta fundatzaileetako bat

ERANTZUNAK:

A2 / B4 / C3 / D1